

RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK


ELIKAGAIAK

2014ko BIGARREN LAUHILEKOA

Jakinarazpenen kategorizazioa
Jakinarazpenen jatorria
Kutsadura iturrien sailkapena
Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak
Aurreko lauhilekoarekin erkatzea


JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA

2014ko bigarren lauhilekoan animalien elikagaiei buruzko 929 jakinarazpen izan dira. Horietatik 218 alertak izan dira (%23,5), 307 informazio-jakinazpenak (%33) eta 404 mugan egin diren ukapenak (%43,5).



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **26,5a Txinakoak** dira eta jarraian **India** dugu: kasuen % **17a. Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien sortu duen herrialdea **Espainia** izan da, % **14,5**arekin. **Afrikaren** kasuan, **Nigeriak**, jakinarazpenen %**31a** izan ditu. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **EEBBak** dira jakinarazpen gehien sortzen duena (% **40,5**).

KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2014ko 2. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 929 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturrirei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturriak	%
Kutsadura biologikoa	%24,5
Hondakinak	%21,5
Mikotoxinak/biotoxinak	%14
Iruzurak	%14
Metal astunak	%10,5
Kutsadura kimikoa	%7,5
Produktuaren egoera higieniko txarra	%5
Kutsadura fisikoa	%2
OGMak	%1



KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % **76,5**an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % **42** eragin du. Bestalde, kasu gehienetan (% **45**) kakahuetea **Txinatik** zetorren. Bigarren lekuan, **pistatxoak** (%**29**).

Kutsadura biologikoei dagokienez, **salmonelek** kutsaduren % **46,5a** eragin ditu. **Salmonella sp** da talde honetako protagonista nagusia kasuen % **82**an. Eskortako hegaztiak izan dira produktu protagonista %45eko kasuetan, %54eko kasuetan Brasil jatorria zelarik. Beste salmonelei dagokienez, % **8,5a Salmonella enteritidis** dagokio (eskortako hegaztiak eragin ditu kasuen % 44,5a eta %100eko kasuetan Europa izan da jatorria) eta %**9,5a Salmonella typhimuriumi** (eskortako hegaztiak eragin ditu kasuen % 70a, eta % 76an Brasil izan da jatorrizko herrialdea).

Bestalde, **E.coli** dugu bigarren kutsatzaile nagusia: kasuen % **23a**. Inplikaturako produktuei dagokienez: **bildotsa (% 42)**. *E.coli*k eragindako jakinarazpen guztiek **Zelanda berriko** jatorria zuten (%100a).

Hondakinei dagokionez, **pestizidak %82a** dira eta medikamentuak %18a. Pestiziden kasuan, **barazkiak** inplikatuak daude kasuen %**64**an eta gehienak (%**49a**) **asiarrak** dira.

Metal astunei buruz esan behar da **merkurioak** eragin dituela jakinarazpen gehien; zehazki, % **57**. Ezpatarraina protagonista izan da %37,5eko kasuetan eta jatorria Espainia %28,5an.

ITURRIA	ZK	AGENTEA	ZK(%)	PRODUKTU ERAGILEA	ZK(%)	JATORRIA	ZK(%)
Mikotoxinak/Biotoxinak	131	Aflatoxinak	100(76,5%)	kakahueteak	42 (42 %)	Txina	22 (45%)
Kutsadura biologikoa	229	Salmonella sp.	106(46,5%)				
		<i>Salmonella sp.</i>	87 (82%)	eskorta-hegaztiak	39 (45%)	Brasil	21(54%)
		<i>S.enteritidis</i>	9 (8,5%)	eskorta-hegaztiak	4 (44,5%)	Europa	4 (100%)
		<i>S.typhimurium</i>	10 (9,5%)	eskorta-hegaztiak	7 (70%)	Europa	6 (86%)
		E.coli	52 (23%)	bildotsa	22 (42%)	Zelanda Berria	22 (100%)
Metal astunak	98	Merkurioa	56 (57%)	ezpatarraina	21 (37,5%)	Espainia	6 (28,5%)
Hondakinak	199	Pestizidak	163 (82%)	barazkiak	104 (64%)	Asia	51 (49%)
		Botikak	35 (18%)	ganbak	19 (54%)	Vietnam	11 (58%)

AURREKO LAUHILEKOAREKIN ERKATZEA

- Kutsadura kimikoak eragindako jakinarazpenen kopuruak behera egin du (% 11,5etik % 7,5ra).
- Metal astunek eragindako kasuen kopuruak gora egin du, %8etik % 10,5era.
- Merkurioak jakinarazpen gehiago eragin ditu, 36tik 56ra.
- *Salmonella typhimurium*ek eragindako kasuek gora egin dute, 3tik 10era.
- Brasil jatorria duten jakinarazpenen kopurua behera egin du, amerika jatorria duten jakinarazpenen kopuruaren ia erdiatik %20ra pasatuz.